

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

223n. zenbakia
azilla 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**D'ABBADIE'ren ETXEA (UNCITI-DEIA)
(GOTIKU-BARRI-TANKERAKOA)**

UMORE BALTZA

Gaiso-aldi luzea igaro -ondoren azkenean eldu jakon eriozea Landaburu'ko Nemes gizon txiro eta zintzoari.

Guda-osteko urteak ziran eta oraindiño Illeta-Artezkariak ez eben euren lana ain egokiro egiten. Orregaitik Anjel'txu, Nemez'en semea, aita il eta laster, aroztegi batera joan zan il-kutxa eskatzeko.

Arotzak, eskaria entzun ondoren, aroztegi barrura eroan eben Anjel'txu eta esan eutson:

—Emen daukozak lau il-kutxa. Aukeratu egik euk ire aitarentzat egokiena.

Anjel'txu'k atera eban orritxu bat boltzatic eta esan eutson:

— Aita naikoa luzea zan, neurkin bat eta irurogeta amabost eunenekoa. Eta naikoa lodikotea be bai. Bere garringurua neurkin bat ingurukoa. Zein dala uste dozu egokiena?

Arotzak neurriak artu eta esan eutson:

—Bat baiño ez jakok neurri orreitako gorpua barruan ondo artzekorik eta —bat erakutsita— auxe dot ik bear dokena.

Anjel'txuk ordaindu eban ordaintzekoa, artu eban sorbalda-gaiñean il-kutxa aundi on eta an joan zan, biderik bide, bere errira joian tarranta artzeko ustean.

Bidean ikusten ebenak pizka bat arritu egiten ziran. Ikusgai negargarria zan aide batetik mutil gazte bat aita illobiratzeko kutxa eroaten ikustea, baiña beste aide batek barregarria be ba-zan mutilla ain il-kutxa aundia eroiala agertzea. Euren artean batek baiño geiagok esaten eban: Kutxaren barruan ete daroa illa? Ala utsik ete daroa?

Tarrantaren lekura eldu zanean, il-kutxa beean itzi eta alboan jesarri zan, Andik igaroten ziranak begiratu bai begiratuten eben, baiña ez ziran ausartzen ezer galdetzen.

Eldu zan tarranta, zarra ta txikia, atzeko aldetik gora igoteko burdiñezko mailladi bat eukan eta goian, atzekoaldean, tretxuak izteko lekua eta aurreko aldean, estalpean, joalariantzat lekua.

Anjel'txuk ainbat berba egin bear izan ebazan eta ekin

eta ekin lortu eban txartel-zulatzailleak il-kutxa tretxuen lekuan eroaten iztea, naiña norki biren beste ordaindu bear.

Jaso eban il-kutxaren ondoan jesarri zan, goi-barrua beterik egoalako.

Tarranta ibiltan asi eta laster, euria egin eban eta jazean egin be. Eta Anjel'txuk bere artean esan eban: Buzti-buzti egin bear naz! Baiña ez, ni il-kutxa barri onen barrura sartuko naz eta ez naz orrelan geiago buztiko. Esan eta egin.

Tarranta aurrera joian eta, beti lez, urrengo errian gelditu zan. Gizon bi igon ziran gora, eta, barruan tokirik ez egoan lez, aterkiak zabaldu eta kanpoan, tretxu artean, ilkutxatik ez azago, jesarri ziran, baiña begi okerrakaz begiraten eutsoen il-kutxari olako gauzak pentsetan ebezan artean:

—Nora ete daroe il-kutxa? Beterik ala utsik ete dago? Nori sartzen jako buruan joalariantzat dan tarrant baten il-kutxa eroatea? iñoan batek bere artean, begi okerrakaz begiratu.

—Ea gero barruan dagoanak urtetan ba'dau eta... Nik ez dakit zer egin be-iñoan besteak.

Bildur orreik bultzatuta, geroago ta dardaratsuaigo alkarri eta ilkutxeari begiraten eutsen artean, atertu egin zan eta orduantxe jazo zan jazotekoa: Il-kutxaren gaiña goratu egin zan eta bitartetik eskua atera eban barruan joian Anjel'txuk eta esan eban:

—Zer? Atertu dau?

Ikusi ba'eben ikusi eben esku on eta berbotsa entzun! Joalari biak tarrantaren gaiñetik bera jauzia egin eben.

Eta ementxe amaitzen da ipuin barregerrita negargarri au. Ez dakigu joalari biak bizi diran ala ez. Meta bai, illeta egin zan eta era onean egin be, arrokeri barik, barrumiña isillean agertzen ebela, eta Anjel'txuk, bere amagaz batera, bake-bakean jarraitzen dau bere baserrian.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziaz izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuinaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.º eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

- Sariak lau izango dira: 1.º 50.000 pezeta.
- 2.º 40.000 pezeta.
- 3.º 30.000 pezeta.
- 4.º 20.000 pezeta.

— Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

MIAMSI LAGUNARTEA (ETA II)

"LAGUN BEARTSUEI LAGUNTZA EGIÑ"

A BEGI ONA

Gizarte maillan, gaurko agintarien eta jakitunen jokabidea giza-zenbaketak eta azterketak egitea da. Zenbat diren beartsuak, zenbat dagozan "drogan" ondaturik, sidaz kutsaturik, etxetik bazterturik etabar.

Bai, zenbaketak eta azterketak ondo egiñak eta ugari. Baña laguntza, gutxi. Azken baten zer egiten da euren aide?

Miamsi Lagunarteak on ikusirik beartsuen biotz barrurario, banan-banan jo gura dau. Giza emakume bakoitzak izakera eta egokera berezia dau. Eta modu berezian abegi ona egin bear jako. Gizadia ez da ardi pilloa. Kristo gure Jauna artaldea utzirik ardi galduaren billa joan zan eta zoragarizko bazkaria ta jaia egiñ. Ori da gutzat molde erakusgarria.

Pertsonak banan-banan onartu bear dira. Ori da gure Parrokian egiten dana. Ogei millatik gora dira emengo biztanleak. Ezin esan alakoak dira, barriz, euren bearraldiak eta nekeak.

Ondamendirako bidea erreza ta zabala dogu. Baña ondamentitik burua ateratzea oso zailla ta egingaitza. Miamsi Lagunarteak ondo daki orren barri eta bear eta nai daben guttien aukera gozo ta biguna eskeintzen dautse.

ZER BEAR DA?

Miamsi Lagunartean sartzeko zer bear da? Biotz zabaltasuna eta maitasuna, gogo zintzo ta garbia, kemena ta gaitasuna bestiei on egiteko. MIAMSITARRAK giro ontan doaz nai aberatsen nai txiroen artera. Asko gabiltza mundu ontan "zalditik astora eta astotik lurrera". Askok ditugu geure gazi-gezak eta gora-bearak.

Danai dago zer erakutsi, eta danok daukagu zer ikasi euren bizimoduan.

MIAMSI Lagunartea ez doa iñora jaun eta jabe giroan, maixu ta ongille moduan, laguntzaille ta ikasle moduan baño. Danok daukagu zer erakutsi eta zer ikasi, zer emon eta zer artu.

MIAMSI Lagunarteak ez dau eginkizun berezirik, ez dabe esaten: "au bai ta on ez". Laguntasun zelaian ez dago mugarik. MIAMSIK ez dauko batzar tokirik. Kristo gure Jaunaren moduan dabil aide batetik bestera, eguzkiaren galdatar, neguaren ozmiñean, oñez, aterik ate. Egokiro esan daikegu emen Jesusek esandakoa: "Itsuak ikusten dabe eta errenak ba dabilta, lepradunak garbi egiten dira eta gorrek entzuten

dabe, ildakoak bizten dira eta beartsuei Barri Ona emoten jake". (Mat. 11,4)

Beartsuen etxe barruan sarturik, zer egiten dabe? Lenengo ta beñ alkar-izketa gozo bat buruz-buru alkar ezagutzeko, euren larrialdiak jakiteko eta egoki dan zuzenbidea erakusteko.

Izan be, gaur egun ba ditugu gizartean giza-erakundeak beartsuen alde, ongintza ta erruki etxeak, jantokiak, serbitzu etxeak. Baña askok ez dauke onen barri eta jakiñerazo egin bear. Giza semea gizarteratu egin bear da. Baña mesederik onena ta goragarriena arimarena eta biotzarena da.

Eginbearrik onena, ez da dirua ta janaria emotea, pertsonak onartu ta gizarte eta eliza barruan abegi ona eskeintzea baño. Ezin esan alakoak dira mailla ontan egiten diran mesedeak.

Abade etxean, aste buruetan, zarata ta berbotsa dantzut. zer dala ta? MIAMSIK batzarrean, egitasmoak eratuten, argitzen eta abiatzen diardu. Gogo beroz ordago zintzo bat joten dabe. Patty'k diño: "Gauza barri batzuk ikasi dodaz aste ontan, batez be erakusmen auxe, zenbat eta geiago emon bestie aberatsago sentitzen naz neure bizibidean". Omar gazteak, barriz: "Alkar laguntzan liburu guztietan baño gauza ederragoak ikasi dodaz".

Beartsuen aide ekitea ikasketa onuragarria da, izan be. "Alkartasun ontara etorri baño leen nik uste neban nire korapilloak eta buru austeak, neureak bakarrik zirala. Orain konaturatu naz jende asko bizi dala ni baño zoritxar aundiagotan murgildurik. Larrialdi zorrotzak ikusi ditut eta sakonkiro ausnartzen nago".

Bakoitzak bere bizibidetik: ugazaba, sendagille, lege gizon, etxegille, maixu eta abar, makiña bat mesede eroaten dabe biotz urratu eta illunetara.

MIAMSIarrak ez dauke ondasunik eta dirurik iñori emoteko, baña neurrik barik zabaltzen dabe maitasuna, alkartasuna, bakea, argitasuna, etorkizuna, eta batez be, sinismena ta kristau bidea.

Uriguen'tar Zenon

EUSKAL ASTEA BIZKAIA'n
"Euskerazaleak alkarrea" k eratua

Bilbao'ko Udalaren babespean
NON? Eskolapioen ikastetxean (Alda. Rekade 19)
NOZ? 1997-12-1'etik 5'era
ORDUA: Arratsaldeko 8'retan
Gaiak eta izlariak URRENKO "ZER" en

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

BIOTZEAN BEGIAK

Neure aurtzaroa, gerra ondorengo aurtzaroa, illuna eta tristea izan zan. Ez ogirik eta ez jolasik.

Kale-baserriko alaba nintzan. Bederatzi anai-arreba. Ezkola-apurtxo bat ikasi ondoren, guretzako beste biderik ez, eta aurzai sartu nintzan gure aldeko uri nagusian.

Geroago, lantegi batean eman nuan nere izena. Etxetik joan oi giñan lanera bizikleta baten gainean. Lan luzeak ziran ordukoak eta zortzi orduak bete ondoren, beste bi gañezko egingo ez zuen kristaurik, ez zan gure artean. Amar ordu luze.

Neska multsoa genbiltzan alkarrekin lanean eta, lana amaitzean, astiro etorri oi giñan etxeruntz, gure kideko mutikoei irripar bat egiteko ere adorerik gabe.

Alaz ere, ametsak, ames.

Nere buru-biotzetan dantzari zebillen, amesetako errege-gai zoragarria: mutil lerdena, bizkorra, ar⁸ña, indartsua... bete-beteko gizona.

Topatu ere topa nuen aren antzeko bat. Bazuen zorioneko motoa eta an genbiltzan jaiero, erririk erri, festarik festa, atsedunik artzeke...

Egun batez, ordea, nere aizpa gasteagoa eta ni, biok etxe-inguruan gaudela, orra or, geure aurrean parez-pare, bi gazte alkarri besotik elduta, biziro izketan. Gurera eldu ziranean, agur egin ziguten eta izketa alaitsu batean jardun genduan.

Ez nintzan lenengo batean konturatu, betaurreko illunak zituan gaztea, itsua zala... Berri onek ez zidan barru-txarrik sortu; bestela, baizik... Gustora nengoen berari begira, itz-jario.

Berriró ere alkar jo genduen ondorengo egunetan eta, ustegabeen, maitasuna ari zitzaigun biotz-barruan emetzen...

—Ez zenduke orrekin ibilli bear. Zu neska panpoxa zera, argia, osasun onekoa eta, gaiñera, badezu zeure mutil gazte bikaña ere... Zergaitik eta zertarako elbarri batekin zeure bizia betirako lotu?

Alan jardun zidan Urliak, konturatuta bait zeuden nere ingurukoak, ni zertan nebillen.

—Gaxo-laguntzaille izan bear at dezu bizitza osoan?

Alkar ezagutu genduen egunean, gure aita zegoen etxe-atarian makal... Mutilla atsegin izan zitzaion:

—Ez egin kasurik inguruko aztiei —esan zidan—; mutil on aberatsa dezu barru-aberaztasun eta alaitasunez. Gorputzeko ezbearrak, barruko ausardi apur bategaz sendatzen dira. Mutilla indarkeri edo lizun-keri menpean ba'lego, esango nizuke, bereala uzteko. Bañan emen ez da orrelakorik. Egizu zeure gogoia.

Andik aste gutxietara il zitzaidan aita.

—Alabatxo —esan zidan il-aurretik—, arako betaurre illuneko mutiko ura, konbeni zatzu. Arekin zorionsu izango zerala deritzait.

Bitarte aretan nere gogoia zalantzan zebillen, aide batera eta bestera, aurreko mutilla ere maite bait nuen. Uzteak min ematen zidan. Alaz ere, aizkenean, erabakia artu nuen eta itsua aukeratu.

Erabaki onek zalapartak sortu zitun nere inguruan. Nere familian baziran esku gogorra erabilli zutenak ere, neri erabaki on burutik kentzeko. Baña, zenbat eta eragozopen geiago, ainbat eta maiteago nuen itsua.

Azkenik, Santa Luzi goiz argi batean esposatu nuen pozik eta alai. Uste osoz. Ez zait damutu.

Ogei urte daramazkigu alkarren ondoan, eta, egia esan, bide guztia ez da lorez bakarrik bete; izan dira arantzak ere tartean. Baña, alkarrenganako konfiantzarekin, alkarri begiratuta, zailtasunik gaitzenak ere menperatu ditugu alkarren pozerako...

Bi alabatxo sortu zaizkigu, eta, nere senarrak begiz ikusten ez ba'ditu ere, biotzez ikusten ditu argi. Itsua izan arren, beste gizonen kideko egin du bere burua, beti alai eta biziaren maitale.

Makrofisioterapia ikasi du eskola famatu batean eta bere eginkizuna betetzen du, ondo baño obeto, Estaduaren osasun-etxe batean. Musika zale da eta erakusten du. Bestetik, berriz, lagun onez inguraturik bizi da.

Gure inguruko pake lasai onek lagundu digula bizitza guztian maitasunaren babesean eta itxaropen-bide izan dedilla, ikusteko biotzaren begiak ez dituen guztientzat.

(Artuta bezela damotzut. EVA-express. Milano. 1979-VII-3).

ANES

≠ ≠ ≠

BAKIOKO BIZIMODUA

Esanaldi laburrean
eta ulertzeko moduan,
euskeraz guztiz errezan
azalduko dot beingoan,
zelan bizi zein tekezan
gure Bakioko errian,
moduz eta era erosoan,
bizitza naiko luzean.

Baldintza guztien artean
bear da, gaurko egunean:
etxea leku egokian,
garbitasuna inguruan,
lagun jatorrak auzoan,
maitasuna sukaldetan,
danak alkartasunean
biziteko era onean.

Barazki ederrak soloan
egin ezkerokakotan,
fruitu gozoak baratzean
luna ondo landu ostean,
jaki-edari onak etxean
bertara gozanean.
Olan gabiltzan artean
goserik ez da gurean.

Berotasuna odolean,
osasuna gorputzean,
itxaropena gogoan,
argitasuna buruan
eta prakak soinean
daukaguzan bitartean,
benetako zorionean
biziko gara bakean.

Emazte ona alboan,
ume zintzoak ondoan,
sinismen sendoa aldean...
Ze ederto, emen lunea...!
Ganera, eriotz ostean
izango gara, bai, zeruan
zorionik bikainenean,
betikotasun guztian.

Oin biak tinko lunea
eta begiak zeruan,
burua tente lepoan
eta garaunak buruan,

maitasuna biotzean,
bake giroa etxean,
adiskideak auzoan,
gorrotoak... bazterrean.

Txapela bore lekuan,
diru apur bat sakelean,
inoiz ez bakardadean,
irribarrea agoan,
santzoka noizik-beinean,
ekin beti, aal dan orean...
garaile gu, azkenean.

Jaungoikoaren legean
bizi gura dogunean:
bearrera astegunean
ta eleizara igandean.
Ondo bazkaldu ostean,
lo kukutxu biagoan,
batez be, udako sasoiari
egun luzea danean.

Atxedena artu beanean
egonda solo ertzean,
etzunduta gerizpean,
guk geuk gura dogunean,
ba... andik beingo batean
gagoz indarrez betean,
baniz asteko moduan
kementsu gure lanean.

Goizero egunsentian,
etxe ondoko zugaztarian,
txoriak txioka bizian
ta dantza zoragarrian.
Arrautza bi sartaginean
ta esnea katiluan.
Ori... Bakio txikian,
baina ez Bilbo aundian.

Nekatuz gure beanean,
etxera gatozanean
ta jarririk maai aunean
aurkitzen doguzanean:
txakolina pitxarrean,
salda beroa azpilean
ta lukainka lapikoan...
A, ze poza, sabelean...!

Izerdita bearrean
etxera elduterakoan,
idoro ezkeru atean
andrea irribarrean;
ta gero, jateko orduan,
umeak maai inguruan,
bakez ta alkartasunean...
Ze poztasun, biotzean...!

Zoraturik beti urian
dabilz itxura larrian.
Erlojua eskuturrean
eta korbata idunean,
apal bizi bearrean,
beti inoren menpean.
Bearrean dagozanean,
nagusi asko aurrean...
Bestala, era onean
bizi gara gure errian,
askatasun ederrean,
barruan eta kanpoan.
Beti egoera nasaian,
patxada zorionekoan.
Bakotzak dauka gurean
agintza bere eskuan.

Gure andrea etxean
bizi da bake eztitsuan.
Bere da, ba, zuzenean,
egiaz erregin gurean.
Beti aalegin betean,
bere kabuz ta ardurapean,
garbi ta era txukunean,
etxea euki gurean.

Ezina da uri aundian
bizi zintzotasunean,
andrazkoak diranean
oituak aundikerian.
Arrokeriak kalean,
zorrak etxe bazterrean.
Biotza irrika gorian
izaten da olangoetan.

Laguntxu, au irakurtean
esango dozu leenean:
eup! oraingo unean
nago zagozalakoan
amesetan oge apatzean,
itxurazko lozorroan.
Ba..., sarri zoritxarrean
izaten gara gu etxean...

Zuri erantzun bearrean
imini nozu oraingoan:
ezina da gure munduan
ibili zorion utsean.
Nonor beti dogu atzean
guri kalte egin gurean.
Benetako zorionean,
lagun, ilda, an...zeruan.

Martin GOITIA
1982ko BAKEA aldizkarian
(Iniaki MARTIARTUk egokitua)

BERBALAPIKOA

Kakotan egin = atxurketan egin, atxurtu.
bikain = itzelezko.
tinko = sendo, gogor.
tente = artez, zuzen.
aldarte = umore.
garaile = irabazle.
10 kukutxu = lotalditxu arina.
biago = bazkaldu osteko lotalditxua (Bakioko berbe).
kementsu = adoretzu.
azpil = plater.
idoro = aurkitu, topau.
idun = sama.
bestala = itzelean (Bakioko berbea).
agintza = aginduteko aalmena.
bere kabuz = berak beratarra.
irrika = irriki, zeozer egiteko/eukiteko gogo andi-andia.
apatz = bigun-bigun (ogia).



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

Agertu-barriak diran leitza-margoen irakaspena: **EUSKERAREN ZABALPEN ARRIGARRIA**

Mediterran Itxasoari, nik, euskeraz, Lurrarteko Itxasoan esan izan dausat, eta, esaera laburtuz, Lurrat'Itxasoan.

Orra bá: Lurrat'Itxaso orren lurraldean, gaurko Euskalerrri txiki ontatik oso-oso urruti, Suizi'tik Frantzi'aren erdia-zear itxaso ortara doan Rodano ibai aundiaren ondoan, leitze-zulo batean, orain arte ezezagunak izan diran margo-lan batzuk aurkitu dauz edestiaurrelari edo preistoriadore frantziar batek.

Aurkikuntza orren berri, Frantzi'ko Jaurlaritzaren kultur-ministroak eman dau "Le Figaro" deritzan Paris'ko izparringian. Guri, ordea, au da margo-lan oiei-buruz bereiziki jakingarri gertatu yakuna:

Leitza ortako margo oiek, osoki, gure leizaetako margoak bezalakoak dirala: "Franko-Kantabrikoa" esan oi yakon kultur-arokoak.

Izen ori, –"Franko-Kantabriko"–, Henri Breuil apaiz edestiaurrelari frantziarrak asmatu ebala, uste dot. Lenen-lenen maillako edestiaurrelaria izan zan bera, baiñan izen ori asmatzerakoan txarto jardun eban. Izen ori okerra eta frantziakeri utsez asmatua dalako, frankoek gure leizaetako margo-lan oien kultura zar artan zer-ikusirik izan ez eben ezkeru.

Orregaitik, kultur orri askoz izen egokiagoz deitu eutsan "Cultura Proto-Baskonika", "Lenen-Euskal-Kultura", gure Bernardo Estornes Lasa onuragarriak. Badautso zor ederrik Euskalerrriak edestilari erronkaritar bikain orri!

Orain Rodano'ren inguru artan aurkitu-barriak izan diran margo oiek, zaartasunez, –Frantzi ta Inghlanderriko iru unibersitateetan "karbono 14"

edo "amalaugarren ikazkia" erabilliz– egin diran neurketek adierazi dabenez, dirala 30.000 urtekoak omen dira: munduko leiza-margorik zaarrenak, Frantzi'ko Ministro jaunaren iritziz.

Orrek, zaartasunari-buruzko auzi orrek, ordea, ez dau gaurko gure azterketa-lan ontarako ajola aundiegirik. Guri bene-benetan orain ajola yakuna, margo oiek "Franki-Kantabriar" edo "Lenen-Euskal-Kulturakoak" izatea da, ots, Kultur-mota orren lurraldean bizitu ziran kromañondarrek egiñak izatea: Euskeraz mintzatzen ziran gizakumeek egiñak izatea'.

"Franki-Kantabriar?" kulturako kromañondar aiek euskaldunak ziralako uste ori, nondik aterea dodan nik? Gai auetan jakintsuena izan dogun On Joxemiel Barandiaran'darraren ezpañetatik.

Agurea zan On Joxemiel, Ataun'go bere etxera, Joxe Karrera Gazteiz'ko olagizon eibartarrarekin joan nintzanean. On Joxemiel'ek Euskerazaintzakoa izan nai eban edo ez, jakin naiean joan gintzazan aruntz.

Alako batean, mintzaketak edestiaurreko gaietara eroan ginduzan-da, galde au egin neutsan nik bat-batean nere irakasle ta adiskide zar ari:

– Aizu Joxemiel: Franki-Kantabriar kulturako leizak margoztu zituzten kromañondar aiek euskaldunak al ziran?

–Bai, erantzun eustan zalantzaketarik gabe:

Bai.

Euskaldunak ziran.

Guk ez genien ulertuko.

Baiñan oartuko giñaneuskeraz ari zirala

Nere irakurleetakoren bat edo batek ez dau, agian, Kromañondar oiek nor izan ziran jakingo. Orra bá:Euskalerrriko lenen gizakumeak, orain dala 150.000 urte emen bizitu yakuzan "Pretxelendar" aiek dira. Beren aztarnak, bi aldeetatik landutako arrizko aizkorak, an-emen aski ugari azaldu yakuz Euskalerrrian. Gero, orain 8-ren bat milla urte, "Neandertaldarrak" dakusgu emen bizitzen: Soiñez motzak, baiñan zabalak, indartsuak, eiztari trebeak. "Horno Sapiens" edo "Gizon Jakintsua", esan oi zaio enda artako gizakumeari. Baiñan, naiz beren aurreko "Pretxelendar" aiek baiño jakintsuagoak izan, ez ziran euskaldunak: ez endaz, ez izkeraz. Geroago ordea, dirala 40.000 urte nondik etorri ziran ez dakigula, emen ditugu "Kromañondarrak" Euskalerrrian. Mundua-zear erruz zabaldu ziran. Baiñan beren lanik ederrena, emen egin eben, Euskalerrrian. Emen sortu eben bá, "Franki-Kantabriko-Kultura", edo, beste izen milla aldiz egokiago batez, "Lenen-Euskal-Kultura. Eta ori, Euskalerrri Zarreko kultura izan zan une artan, mundu osoko kulturik ederrena. Ta, Kultur eder on-en giroan Euskalerrriko Kromañondarrek sortu eben gauzarik miresgarriena, gure izkuntza dugu: EUSKERA.

Atzipeturik ibiltzeko bildur aundirik gabe esan daikegu', beraz, edestiaurreko une aietan Euskera gaurko Frantzi'n Ego-Rodano ibaiaren ibarretaraino iristen zala.

Noiz arte iraun eban aide aietan bizirik euskerak, ez dakigu; baiñan an euskeraz itz egin zalako siñale ditugu erromatarrek lurralde artara iritxi ziranean an aurkitu ebezan euskaldun-itxura aundiko uri-izenak.

Ikus, adibidez, an gero gotzaidunak izandako uri guztien izenak:

— "Abenio", "Abennio", (irakurri eizu Abeño, "AI" ta "NNI"ren aboskera orixe da-ta). Gaurregun Abiñon esan oi zaion uria da.

— "Biterre". Beziers esan oi diote orain frantziarrek.

— "Albiga". Badaiteke izen on jatorriz "Arbiga" izatea ere, euskerazko "R" aixa "L" biurtzen dalako. Dana dalarik, berdin zaigu guri. Oso ugaria bait da gure artean, aurrizkiz bai "ARBI" eta bai "ALBI" ere daramaten toki-izenen sorta. Gaur, Albi deritzaio, eta XIII mendean "Albigenses" edo "albitarrak" esaten yaken ereje gogor aien uri-burua izan zan erromatarren Albiga zar ari.

Ez dot esan bearrik izango "Albia" Bilbao'ren baxtar pout baten izena dala, gaur bereiziki bertako lorategi txukunak ezaguna egin daun txoko atsegiña.

— "Alba", edo, —"R" ta "L"ren arteko nasketaren ondorioz—, agian Arba. Orain uri orri Viviers esan oi yako frantzeraz.

Pekatu ere egingo neuke noski, Alba izenekoa izan zan uri ori, gaur bertan Frantzi'ko erderaz Ardeche esaten dautsoen lurraldean aurkitzen dala esan gabe utziko ba'neu. Euskal-itxura aundiagoko izenik aurki al daiteke?

— "Arelate", (Are-l-Ate). "Arelas" (Arelats?) ere esan yakon uria. Orain Arles izena daraman antziñateko ibai-kai ospetsua, Rodano ibaia Lurrat'Itxasora sartzen dan tokian dagoana.

— "Arausio", gure egunotako frantzeraz, Orange.

— "Nemauso", Nimes, orain.

— "Narbo", "Narbona". Orrenbeste mendez izenik aldatu gabe diraun uria. Antziña lurralde artako aundiena eta ospetsuena'.

—Ez dagidan aipatzeke utzi erromatarrek "Valen-

cia" esan eutsoen eta frantziarrek "Valence" izendatzen daben, Rodano'ren ertzeko Uria, len gaur baiño garrantzi audiagokoa izan zana.

"Balentzi": Euskalerrian ugari agertzen yakun abizen eta toki ta baserri-izena: "Balentzia" (Naparroa'ko Garinoaiñ'en), "Balentenia" (Laburdi'ko Bidart'en), "Balentkada" (Leaburu'n), "Balentegi" (Donosti'n), "Balentto" (Bergara'n), "Balentzegi" (zarautz'en), eta danetan ezagunena, Balentziaga, eta, ez, ainzunen ezaguna, "Balentxi" bertsolaria jaio zan Azkoiti'ko baserriaren izena dalako, abizena lez getariar batek, Kristobal Balentziaga'k, emakumeentzako traputxo txukunak eratzen ain yayoa zalarik, mundu guztian ospetsu egin daulako baizik.

— Izen oietako batzuei ez zaiela ain errez euskal-itxurik ikusten?

Bedi. Baiñan gogora ekarri bearra dogu, izen oiek mendeetan eta mendeetan, izkuntzatik izkuntzara jauzika ibilli bear izan daben bide neketzua: Euskeratik, Latiñara; Latiñatik Probentza'ko erromantzetzera. Probentzera ortatik Frantzi'ko erromantze zarrera, eta, azkenean, gaur-egungo frantzerara. Ez da, beraz, arritzekoa, izen oietako batzuen euskalduntasuna zerbait lausoturik agertzea. Benetan arrigarri yakuna, izen oietako geienek orrenbeste jauzi-ta-jauziren ondorean euskalduntasun on ain ederki gorde izatea da.

Ainzuzen, margo oiek agertu diran leizak berak ere, "Chauvet" dau izena, agoskeraz "Xobet". Euskeraz asko ditugu "TXA"z asten diran izenak, eta "txa" oiek ia beti, "e" galdu daun "ETXA"ren aldakuntzak izan oi da".

Orta, leitza aren uskal izena "Etxabet", edo, frantziarrek azkeneko "E" ezereztu egiten dabelako, agian "Etxabete" izan eitekean.

Frantzeraz "CH" ori "X" agoskatzen dala? Ez dautso ajolik. Gure "TX" "X" biurtzea gauza atsegiña izan bait yako Zubero ta Erronkari'ko euskerrari: Adibidez, "Xabier" Naparroa'n, "Xabierre" Ueska'n..., etabar. Era ortan, leiza aren izena "Xabet" edo "Xabete" izatea ere badaitekean gauza da, ez dogu aztu bear, leiza-zulo artan seguruaski Zubero'ko euskeraren antzeko euskeraren bat izango zala. Zuberoa da bá Rodano'ren ibarretik bertena dagoan gure euzkadi onen lurraldea.

Esan dagidan, Euskeraren zartasunari -buruz, gutxi-gora-bera elburu berdiñera iritxi yakula Latxaga beste bide batetik, Paris'ko Sorbona unibersitatean aurkeztutako "tesi" bikain batean gure izkutzaren aditza aztertu ondorean.

Erromatarrek, izen oiek beren deklinabidearen "nominatibu-eraz" idazten ebezan ("Nemausus", "Arausius"...) edo, baita, izenondokoraz ere ("Arelatensis", aurretik idatzi bearra eben "Civitas" esateke lagaz). Nik deklinabide bereko ablatibu-eraz eman dodaz, ori da b a euskaldunen agotik erromatarrek izen oietako bakoitza entzun eben era.

EUSKEREA

Badira, eman dautsudan zerrenda ortan, bi izen geiago, agian zuri, irakurle, euskal-doiñu gutxikoak iduritu yatzuzanak: "Nemautso", bat; bestea, "Arausio".

Begira bekiogu, aurrena, antziña gaurko Orange'ren izena izandako "Nemautso"ri.

Ona bá: Oraindik Kristo bizi zala jaiotako Plinio idazle erromatarrak, Baskoietaz mintzatzerakoan, "Nemanturisassa" bat aipatzen dauku, eta uri on Baskoiena zala diñosku. Uste danez, uri baskoi ori, Naparroa'n, Aragoi ibaiaren ibarrean omen zegoan, Lumbier'tik laister egoaldera. Baskoia zala jakiñik, non egon eitekean jakiteak ez dau garrantzi aundiegirik guretzat orain.

Baiñan, zegoan tokian zegoala..., Naparroa'ko "Neman-nt-Uri -Tsa", ("Nema'nteko Uritsa"?) eta, gaur Frantzi'ko, "Nema-U-Tso", —("Nema-u(ri)tso"?)— ez al yatzuz bata bestearen antza aundi-ko izenak iduritzen?

"Arausio"ri dagokionez, berriz, aski izango dot, "ARU"z asten diran izenak asko doguzala oroitezaztea. Zortzi idatzi dodaz nik oraintxe ingi batean oroimenari neke aundiegirik eman gabe, baiñan danak emen agertzeak luzeegia egingo leuke nere lantxo koxkor au.

Alatagutziz, bat bai, bat agertu nai neuke: "Arausio" zar aren senide dirudian "Arau-txo", Araba'n Arbulo'ko alor baten izena.

Ez dot esan nai erromateko izen aiek danak euskaldunak diralako ori, sinispideko egia danik. Baiñan, bai, esan nai dot euskal-itxura badabela, —eta aundia dabela!—, ta, gure egunotan lurralde artan "Leen-Euskal-Kultura"ko margo oiek agertu izateak, izen oien euskalduntasunaren aldeko iritziari indar izugarria ematen dautsola: izan ere, iritzi ori..., ia-ia osoki egiazkoa biurtzen bait dau!

Auxe besterik ez yat esateko gelditzen. Aurkitu berria izan dan leitza margodun ori dagoan tokiak ere euskal-usai aundiko izena daula: "Ardeche": goraxeago aipatu dogun "Ardeche"bera: gure idazkeraz, "Ardexe", edota, "Ardetxe".

Bere etimologia "ardi"-"etxe" dala esatea, arris-kugarriegia dala iduritzea yat, "Ardexe" edo "Ardetxe" ura ibai baten izena eta, baita, ibai orrek "departamentu" bati eman dautson izena dalako.

Naikoa izango dot "Ardetxe" orren aurrizkia, "ARDE", gaur Gipuzkoa'ko baserri baten izena dala, eta baserri orren izenetik sortutako abizena ere

badala, gogora erakartzea. "Ardeo", barriz, alor baten izena dogu Gipuzkoa'n bertan.

Rodano-aldeko "Ardexe"aren antza aundikoak dira, baitare, Gipuzkoa bertako "Ardeise" izeneko baserria ta seguruaski baserri ortatik sortutako "Arderise" abizena, Araba'ko Gobiaren'en "Arde-txo", Araba bertako Onraitia'n "Arderetxe", eta Naparroa'ko "B-arderetxe", danak, lur-izenak.

Gauza auetaz mintzatzeak biotz-zirrara bikoitza sortzen du nere barrunbean: Alde batetik, poza, euskera ain zabalki edatu zalako; bestetik, samiña, gure euskerak ainbeste eta einbeste lur galdu daulako.

Eta kezka bat: ezabatuko ote yaku euskera gaur itzegiten dan lur-puxketa txiki auetatik ere?

Erantzuna..., baiezkoa edo ezezkoa..., emakume euskaldunen ezpaiñetatik zintzilika dago!

Latiegi'tar Bixente

P.D. On Joxemiel Barandiaran'i bere burua Euskerazaintzakotzat zeukan edo ez galdetzearren joan nintzala Ataun'era, esan dot. Bille-ra artan esan zana eta an gertatu zana, agian, bateren baten aburuz jakingarri izango ba'litz, ez litzakit zaillegia gertatuko gai ortaz bizpairu itz Aldizkari onen orrietan agertzea.



BAKIOKO UDALERRIAREN MUGARRIAK

Erri guztietan jazoten dan lez, Bakion be sarri izaten dira arazoak, gorabeerak, bai bertoko erritarren artean bai alboetako erriakaz, alkarregazko artuemonetan, argitasunak lortu bear izaten doguzanean.

Gaur egin, orrelango buruausteren bat gure artean sortuten danean, beingoan berotuten gara. Gero, asarre gogorrean iminten gara eta, azkenean, arik armen, alkarriketa zintzoa egiteko neurriak artu bearrean, goragora jotzen dogu. Leenengo, legelari zuur eta azkarra bilatu ostean, ez bai barik auzitegira jotzen dogu...

Ai, ene! Gizajook! Or doaz pikutara gure neke, bear, izerdi eta ekinaldi bidez, ondo kostata, irabazi doguzan bostekoak!...

Onelakoa da, zoritxarrez, gaurko mundua. Bakezaleak baino, burrukazaleagoak agertuten gara. Gure eskubideak izan ezik, besterik ez dogu ikusi eta onartuten.

Gu geu baztertu? Gu geu zapaldu?... Ez, orixe! Ni oinperatuko nauan amaren semerik oraindikarren ez da jalo... Au izaten da, geienetan, guk burrukatu, sinistu eta erabilten dogun lege nagusia eta sarritan, bakarra.

Baina, ostera, gure aurrekoak, gure arbasoak eta gurasoak ez ziran orrelangoak. Eurak patxadaz bizi ziran, gu baino nasaiagoak ziran, euren bizikerea barebaretsua zan. Guk bearrezkotzat daukagu berebela, arinago ibilteko, leku guztietara belu eldu arren. Gura ta gura ez, egunero irakurri bear dogu izparringia, gure kirioetarako kaltegarri izaten bada be. Eurek ez eukun asto zaartxu bat baino, Bermeora edo Mungiara joateko. Sutondoko pozgarrizko alkartasunean igaroten ebezan, gogaitu barik, orduak eta orduak, koplakontetan edo leenagoko sorgin ipuinak esaten.

Igandetan edo euri-egunetan, gazteek bolo jokoan neurtuten ebezan euren indar eta trebetasunak, eta zaarrek, barriz, musean edo alkarrerik adarra jotzen emoten eben denborea. Aste osoan bear asko eginda, bai, baina inoiz ezergaitik ernegatu edo larritu barik. Benetan, euren bizimodua geurea baino askozaz be txiroagoa izan arren, euren bizikerea geurea baino alaiagoa, baketsuagoa eta nasaiagoa zan.

Ona eldu ezker, aitatu bearrekoa deritxot, antxina Bakioko bolatokia Ardantza ondoko sastrakan egoala. Gaur gure artean bizi diran zaarrek antxe ezagutu dabe eta dinoenez, amaikatxu txakolin boteila posturean jokatu dira bertan. Geroago, bolatoki au Estankoalde ondora ekarri eben. Emengoa askok ikusi eta ezagutu dogu geure gaztaroan. Sasoi aretako tabernarik onena, barriz, Tabernatxu deritxogun etxean egoan eta.

Bizikera a adierazoteko jazokera bat, ez da ipuina, edestu bear deusuet. Ez dakit noiz edo zein urtetan jazo zan, baina ukatu ezineko egia da bein baten gure erriko

agientariei jazo jakena. Bakioko mapa barriak egiteko, bearrezkoa zan erri baktaren mugak agirian eta errezi ikusteko eran ipintea (guk bakiotarrok mugarriari munarri esaten deusogu). Bakio eta Bermeo artean ez egoan zalantzarik. Gure arteko mugak argi egozan, bada, Kontxakoerreka edo Oxaorta dalako errekea (Bakioko erreka nagusia) zan gure errien arteko lerro banatzailea. Ostera, Bakio eta Mungia arteko mugea ez eben ain garbi ikusten. Gure erri biren artean dana zan Mendia, sasia eta otea. Ez egoan arririk, ez zugatz ezagunik. Ona arte Bakio eta ortik ara Mungia zala adierazoteko erakorik ez.

Gauzak olan zirala, Bakioko eta Mungiako agintariek goitik artutako agindua bete eta, era berean, gure arteko arazoa betiko atonduteko, erabagi jatorra artu eben: legegizonak eta epaileak baztertuta, eurak euren artean alkartu, berba egin eta zorioneko mugarriok gure erriei jagoken lekuan imintea. Esan eta egin. Gure gizonok aukeratu eben, bada, mungiarraz alkartuteko eguna, garrantzi aundiko zeregin a beteteko. Sasoi atako bakiotarrrentzako gure erriak eukan arazorik garrantzena a zan: udalerriko mugak betiko argitu eta jartea. Baina orduan be, Barrabasen ziria sartu jaken buruetan. Bakio oso txikia zan eta aaleginak egin bearke ebezan erriko lurraldea zabaldu eta aundiagotuteko. Gitxienez, Jata-mendi oso-osorik geugandu bearke genduan. Baita Zumetzagako inguru guztia eta Emerandoko zati on bat be. on lortuteko, mungiarrei arretarik onena emon bearke eutseen, areei ondo be ondo esanda. Bigun-bigun berba egin ezker, koipekeria apur bat erabiliz, irabaziko ebezan, zalantza barik, Mungiako ordezkariek biotz eta adimena.

Eguna eldu zanean, asmo aregaz aukeratu eta ederto apaindu ebezan asto bizkor bi, janariz, edariz eta beste gauzak beteta. Lau asto-otzarak bete ebezan, bada: txakolin txanbil bi, bata zuna eta bestea gorria; lapa-otzara bat be, lapaz beterik; beste zorro bat lanpernaz ganezka; lukainka txorta luze bat eta, zergaitik ez?, pernil eder bat, gaztaia ugari, eta taloa be neurri barik... Bai, polito orniduta joan ziran Bakioko ordezkariek, asto eta gizon, pozik eta baikor, itzelezko negozioa egingo ebelakoan. Artu eben Zumetzagako bidea, bada, baina Olatxuburura eldu orduko, nekatuta eta egarriak erreta egozan.

— "Txo, oraindikarren goiz dok. Atsedentxua egin bear joagu bertan etal.."

Gure mutilak, Txomin, Patxillo, Kostantzio eta besteak, zurrutada batzuk artuten asi ziran euren eztarria labanduteko. patxadaz eta astiro zutundu eta barriro asi ziran estratzen gora, etenbako barriketan, aldarte onean, txantxetan eta alkarrerik adarra jotzen. Bai, Jerusalemgo gurutzebidea baino ibilaldi luzeagoa zan a. Ez negarrez

ERRIAK

eta eriotzara joiazalako, ez dinot orregaitik, 14 geldialdi baino askozaz geiago egin ebelako baino.

Beste aldeko ordezkariak, ostera, mungiarrek, ezer barik, eskuan makila bana artuta baino ez, ibili ta ibili ziran. Sasoiz eldu ziran aurretiaz aukeratutako tokira. Baina, an ez egoan inor. Itxaron eta itxaron, baina dana alperrik. Azkenean, gogait-gogaituta, Bakioko lurraldean sartu eta bakiotarren bila abiatu ziran. Ainbat denboratan ibili ostean, eldu ziran euren belarrietara bakiotarren gedar, barre-zantzo eta berbotsak. Beingoan egin eben alkar batzuk besteekaz eta leenengo agurrak egin da, bakiotarrek, euren txikitasuna eta makaltasuna aaztuteko, eta euren eskuzabaltasuna eta erriko aberastasun ugariak erakustearren, txakolin txanbil baten zapotza kendu eta arro-arro mungiarrei eskaini eutseen erri aretan ezelan be lortu ezin eben edari fina. A zan txakolina! Ez egoan inon alango edari gozoagorik. Sudurzuloe-tatik sartuten jaken lurrunaren gozoa! Axe naikoa zan gizon areek liluratuteko. Mungiarrek pozik egozan, bakiotarren arretea ikusita. Janari ederrak, edariak, obeak. A zan egotaldial... Eta jateko gogoal... Bakiotarrek be, pozarren egozan eta lantzean bein alkarrerri keinu egin ez euren artean esaten eben:

— "Irabazita jaukaguk joko au. "Oneek geureak dozak..."

Talde biak, anaikiro, bearrik ezean, alkartasun jatorrean, berba eta berba. Ondo jan eta ondo edan ostean, alango betekada ederra artu ta gero, dinot, zutundu ziran gure erri bietako ordezkariak, euren eginkizun nagusia egiteko asmoz edo...

— "Pernando eta Txomin, zuok joan zaitezte ara gora. Erraimundo eta Patxillo, beeko trokara... Zu eta ni berton lotuko gara, zenteilaren mugarriok beingoan iminiko doguz eta" inoan Bakioko alkateak.

Esatea erreza da, baina egitea beste zorro bateko uruna zan. Ausnarrean dagoan kortako bei zaarraren antzera, gure gizonok be, zeruan lez egozan, urdaila beteta, sabela astun, burua bero, oinak bearen ganetik jaso ezinik eta adimena erdi ilun. Ganera azur guztiak gogortuta eta bear egiteko gogo gitxi...

Orduan, mungiarren agintari lez agertuten zanak esan eban:

— "Gizonak! Konturatu barik beluegi egin jaku. Laster eguzkia Gaminiz aldeko itsas ertzean estalduko da, gaua ganean daukagu eta gu Mungiatik asago gagoz oraindionokarren. Zer deritxozue, berton asita mugarriak sartuko bagenduz? Leenengoa berton eta besteak, joanez joanez, bide ondoan iminiko doguz eta ordu betean amaituko dogu ona ekarri gauazan arazo madarikatu au".

Mungiarrek ago batez erantzun eben:

— "Egia dok. Adiskidetasun ederrean gagozak, lagun zintzoak gozak eta asarrekuntza barik, oraintxe kendu bear joagu buruauste au".

Bakiotar gizajoak, alango aparti-kopua jan ostean, ez egozan eztabaidetan asteko eran. Euren adimenak ez eukan zorrotzasunik Emerandoko lurrez jaubetute-

ko beste, ez eta erriaren eskubide ezagunak jagoteko be.

— "Kostantzio! Ik zer dinok, bada?"

— esan eutson alkateak idazkariari. Eta onek:

— "Ni konporme naiagok, kontxo! Berton sartuko jau-aguz eta kitu!"

Esan eta egin. Alan amaitu zan bakiotarrek aurretiaz euren buruetan asmatu eben "negozio biribila". Benetan amaiera kaskarra lortu ebena. Eta garaile urteteko asmoz abiatu ziranak, burumakur, galtzaile eta otzan-otzan biurtu ziran Bakiora. Egia esan, egun atan ez ziran konturatu lotsagarrizko jokaerea erabilena. Bai, urrengo egunetan, euren buru eta adimena argitu ziranean. Baina orduan, eginak eginda egozan.

— "Or konpon! Guk inogaz ez dogu sortu ezelango asarrekuntzarik, ta ganera, zoragarrizko arratsaldea igarodogu, mungiarrekaz aaztu ezineko alkartasun zintzoan. Zorioneko mugarriak or dagoz ondo eta sakon sartuta, edonork errez ikusi daiazan".

— on esanez zurituten eben gure agintariak euren erruzko jokaera motza. Arrezkero, or ikusten doguz Mungiaiko lurraldeak ia Goikolea alderaino sartuta. Bai Emerando bai Zumetzaga gure mugarrietatik kanpo geratu ziran betiko.

gure aurretikoek, nire ustez, baeuken diplomazi apuna, baina negozioetarako ez eukin trebetasunik. Baina, alan eta guztiz be, parkatuta dagoz. Ez da?

Martin GOITIA
1981eko BAKEA aldiskarian
(Iniaki MARTIARTUK egokitua)

BERBALAPIKOA

udalerrri = udalaren lurralde

legelari = legegizon

ezbai = zalantza

bostekoak = dirua adierazoteko

oinperatu = zapaldu

izparringi = egunkari

kirio = zan, nerbio

txiro = beartsu

sastraka = sasitza, beresi

atundu = eratu, konpondu

arreta = baten bateri ondo esana

txanbil = kantara, suil

lanperna = pertzebe

aldarte = umore

zapotz = zotz (kupeleko agotxua itxiteko)

eginkizun = betebear

urdail = sabel

Gaminiz = Plentziaren euskal izen zaarra

kaskar = txar, oker


otzan = mantso

zuritu = justifikatu

IPARRA



BIZKAIKO ITSASOA



MUNGIA

EUSKERA ZORAGARRIA - UME TXIKIEN BERBAKERA

Ume txikien berbakerea esaten dogunean, eurok darabilezan berbak dira ala umetxuenganako nagusiek darabilezanak? Biak dira izan.

TXIRI-TXIRI,
OINE-OINE.
AMA LEGEZ,
AMAMA LEGE,
AITITA LEGEZ.
TXIRI-TXIRI,
OINE-OINE.

(oinez ibiltzen ikasten dagoan umetxuari lagunduteko abestitxua dogu hau)

Bizkaiko euskera galduten doan ginoan, erdereak sartu ta sartuten jaku, geroago eta sakonago sartu be. Erdeldunduten joaku, bada, bizitzea Bizkaian. Galtze onegaz batera eundaka esakera berba eta adierazpide joakuz betiko.

Au berau, batez be, ume jaiobarri eta ume txikien munduan jazoten da, mundu onen berbakera berezia ia galduta dogula.

Umetxua bera etxekoengandiko artuemonetan eta, batez be, amaren eskutik sartuten da berbaldunen munduan. Beingo baten asiko da umetxua beste doinu eta zaraten artean amaren agotsa ezagututen. a Leenengo ta bein, berbak eurak baino, beroneen doinuak ezagutuko dauz. Orregaitik, umezaroan umetxuokaz erabilten doguzan berbek eta berba antzeko zaratek garrantzi aundia dauke.

Berbetan asi baino leen, doinuak egiten dabez umetxuek. Beluago, berba antzeko doinuak egitera elduten dira, nagusiek eurek erabilten dabezan berben antzeko berbak egiten aaleginduko dirala. Nagusiek darabilezan esangura bardinak bilatu guran, aurki. Esaterako:

TA-TA: 1.- aita.
2.- tas-tas.

Esangura ezbardin bi, beraz.

Olan bada, umetxua nagusiarenak esaten aaleginduko da eta onek berba barriak edota zarata barriak asmatutea eta ikastea dakar. Izan be, ume txikiek erabilten dabezan leenengo berbak nagusiengandik ikasten dabez beti eta. Umeak zer ikusi, a ikasi. Denporearen joanean, berba oneen arteko asko ta asko nagusien berbakerako egin dira.

Umea txikerra dan artean, esaldiak egiterakoan beintzat, irugarren pertsonen bidez baino ez jako egiten berba, esaterako: "zer ekarri deutso altak seineri?" ; "nori egin deutso barre seinnek?"... Geienetan, aditzak ez dira jokauten.

Orain ogei urterik leenagora guztiz oidalakoa zan ume txikien berbakune au. Bizi-bizirik egoan gure etxeetan eta seinetxuek leenengo oinkadekaz batera ikasten eben. Gaur egun, Bakion erabilera au, arean baino baztertuagoa, il bearrean dago,

zoritzarrez. Baina ez on bakarrik, erdereak bereak sartutea lortu izan dau. Nork ez dauz erri onetan, bada, oraingo ama askoren ezpanetan onelangorik entzun: Kariniito!, Tesooro!.... seine-txue!, laztanaa! edo pitxiin! oneen ordezt?

Eskolara artekoan, etxean ikasiko dau umetxuak berba egiten. Aurrean aitaturako berbakera on etxean bakarrik ikasi leiteke eta. Orrexegaitik, gaur eguneko ume txikiokaz euskeraz egitea garrantzi aundi-aundikoa bada be, umezaroan ume-berbakune dalako on erabilteak geroko umeen euskera sendotutea dakar.

Orduan bada, umetxuekaz berba edo berba antzeko orreek erabilten ikasi daigun. Onetarako ondoan BERBALAPIKO laburra dakartsuegu. Ziur gagoz berbotatik asko be asko ezagunak izango dozuezana eta batzuk, bear bada, aaztuta. Ikasi eta erabili eizuez, bada! JAGOIZUE BIZKAIKO EUSKERA EDERRA!!

TXALO PIN TXALO,
TXALO PIN TXALO,
KATUTXUA MIZPIRA
GANEAN DAGO.
BADAGO BEGO,
BEGO BADAGO,
KATUTXUA MIZPIRA
GANEAN DAGO,
BEGIRA DAGO.

(ume txikitxuei txaloak egiten irakasteko erabilten dan abestitxua)

BERBALAPIKOA (umetxuena

ABABAU= txakurra / txakurrak egiten dauan zaratea.(AU-AU)

ABO-ABO= loak artuteko umetxuari esaten jakona.

ADUR-DARIO= adurtia, ezpan ingurua beti adurrez bustita dauan umetxuari esaten jako. (bardin: MORO-DARIO, RAKA-DARIO...)

AIAIA= kalea.

AIAIAN (joan)= kalera joan / ibiltzen joateko esaten jako. AIDA-AIDA= idia, beia, zekorra eta.

AINGERUTXU= laztana, sein, maitasuna adierazoteko. ALA-LA= ondotxu, naiako ondo.

ANDI-ANDI(joan, egin)= etxetik kalera ibiltzen joateko orduan. API= otz-otz dagoan zeozer ukutukeran / norbera bustikeran.

APA= abereren baten edo nonoren altzoaren ganera igonkeran edota besoan artean artukeran esaten jako.

APAPR- kalea.

APAPAN(egin)= ibiltzen joateko esaten jako umetxuari / umetxuak anka egin dauanean esaten jako.(ATATAN)

APATXE(egin)= jesarri / jesarterakoan esaten jakona.

ARGIZARIZKO= azal leun eta zuri-larrosa dauan umetxuari esaten jako.

ARRETXIROTAN= umetxua lepo ganean eroateari esaten jako.
ARROTZA-GORRINGO= kontu aundiz jagon bearreko ume-
txuari esaten jako.
ARROTZA-JANGO= arrautza jalea danari esaten jako. (bardin:
FRUTA
JANGO, OGI-JANGO...)
ASTOKO= astokiloa, burugogorra, astokeriak eginkeran esaten
jako.
AUPA!= umetxua jesarrita edo etzunda dagoan tokitik goratuke-
ran esaten jako.(APA!)

BABITU= garbitu.
BAPO= ederra, galanta / umetxuak jaten amaituten dauanean esa-
ten jako.
BARRABAN= biurria, okerra, gaiztoa.
BEGIZURI= begi urdin argiak dauazan umetxuari esaten jako.
(bardin: BEGIBALTZ, BEGIEDER, BEGIANDI,...)
BERERERA= ardia, bildotsa, arkumea, artxoa eta.(BEKEXE)
BILI-BILI= aatea.
BILIN -BOLA= txirrinbueltea, bilinbueltea, itzulipurdia.
BILIN -BOLALA= bilinbuelbaka, txirrinbuelbaka, itzulipurdika.
BIORRI= biurria, okerra, gaiztoa.
BIS-BIS= katua / katuari deituteko egiten dan zaratea.

DILIN-DALAN= kanpaia / kanpaiaren zaratea.
DIN-DAN= danbaladaka, zabuka, bilinbalan / txiboan ibiltea.
DINGILIN-DANGALAN= mogimendu aundiz ibilkeran / erren-
ka dabilen umetxua / burdiaren trangeladak.
DROGOSO= biurria, okerra, gaiztoa.

EIN= egin.
ERDU!= etorri aite!, ator!
ET= ez / kontuz! esateko.
ETETET= ez,ez, / kontuz, kontuz! esateko.

FIRI-FIRI= gatza apurka -apurka ete gitxi-gitxika botakeran esa-
ten da.
FU= sua / eguzkia gorri-gorri dagoanean esaten jako umetxuari.
FU(egin)= putz egin (suren bat amatateko).

GAUTXORI= gaeuz itzartuta egoten dan umetxuari esaten jako.
GIZONTXU= beste mutil txikitxu bat umetxuari erakusteko esa-
ten jako.

INUZENTE= kokoloa, ganorabakoa, umetxuari gozoro alan esa-
teko.
IZTERRULURA= umetxua nagusi baten oin baten ganean jesa-
rrita, izterrazabalikdaukazala, bilinbalankadabilenean.

JAKAN= jan txarrekoa dan umetxua edo gitxi jaten dauana.

KAKA= gorotza, satsa, loikeria guztiak, berak ukutu ez daiazan
esaten jako umetxuari.(KAKELA)
KAKELO= saskela, saskeldoa, loaia umetxuari esateko.
KAUSK(egin)_ aginka eg'n, kosk egin.
KIKI= umetxuari bekoki ganean uleez egiten jakon kiribiloa /
agina.
KIKI(egin)= ostutka ibili / ostuka ibilkeran esaten jako.
KIKIL= zakila.(KIKILINO)
KILI-KILI(egin)= kili-kili egiten jakonean esaten da.
KILI-KOLO= kilin-kolon, askatuta, loka, zeozer loka dagoanean
KISK-KISK(egin)= ulea moztu edo ebagi.
KISKI-RASKA= umetxua jokeran esaten jakona.(KISKA-KAS-
KA)

KOIEGAZA= mainatsu, maina andiak dauazan umetxuari esa-
ten jako.
KOKO= mamarro txikia / txokolatea / arrautzea / umetxua ikara-
tu egiten dauan gizonkia.
KOKOLO= ganorabakoa, inuzentea, umetxuari goxo-goxo esa-
ten jako.
KOKOLOBATXI= kokolotxua, kokolo esatea baino samurrago
esaten jako.(KOKOLOMENDI)
KOKOMARRO= mamua, ume txikiak ikaratuteko aitatuten
jaken gizonkia.
KOSKON(egin)= umetxuari kokoteko txikiak buruan emon.
KOXKOR= txikitxua, eldua ez dana.
KUKU(egin)= umetxua ostenduta dagoan lekutik zeozereri begi-
ratu deion edo begiratuten deutsonean esaten jako.
KUKUBARRE= umetxuak edonori barre egiten deutsonean edo
egin bear deutsonean esaten jako.
KUKUKA(egin)= burua lantzean bein ataraz kuku egiten daua-
nean esaten jako.
KUKULUMIO= makurtuta, kokoriko, orpoen ganean jesarrita
dagoanean.
KUKURUKU= oilarra / oilarrak egiten dauan zaratea.
KURRA-KURRA= oiloa / oiloari deituteko berbea.
KUTTUN= laztana, seina, aingerutxua, umetxuari maitasuna
adierazoteko berbea.

LAU-TXARURREN= umetxuak eskuak eta oinak beaeren ga-
nean dauazala ibilkeran esaten jako.(LAU-TXAKUR)
LAZTAN= seina, aingerutxua, umetxuari gozoro esaten jako.
LO KUKUAK= lotaldi laburrak egiten dauazanean.
LOLO= loa.
LOLO (egin)= lo egin.
LOLOTAN (egon)= lo egiten egotea.
LOTI= lo asko egiten dauan umetxua.(bardin: NEGARTI, TXI-
SETI, KAKATI, ADURTI, MAÑATI...)

MA (egin)= musua emon.
MAMA= ura, esnea edota edozein edari.
MAMALABATXI= mamalatxua, neskei gozoro esaten jakena.
MAMATXALATXU= umetxuari mamala esateko (neskatilei).
MAMELO= gozokia, karameloa.
MANAR (egin, euki)= negar egin.
MANU= mamua, umea ikaratuteko erabilten dan gizon antzekoa.
MASUSTATXU= kokolotxua, neskatilei gozoro esaten jake.
MAU= jan / agskada edo koputxuren bat jan daian agoan sartu-
keran esaten jako.
MIRRI= argala, txikerra, makala / jan txarrekoa.
MITXIN= katua.
MIXOR= pirria, beterrea, erretxinea, eroan txarreko edo alditxa-
rreko umetxuari esaten jako.
MIX-MIX= katua / katuari deituteko erabilten dan zaratea.
MIZKIN- jateko orduan, mizkeriak otordua bera baino grago
dauazan umetxuari esaten jako.
MOSOLO= baXetsua, barea, otzana / matrailgorridun dan ume-
txua.
MUSU-GORRI= matrailgorridun dan umetxuari esaten jako.
MUSU-MERKE= edonori musuak emoteko beti gersu dagoan
umeexuari esaten jako.
MUXE (artu)= asarratu / bekoki iluna egin edo jarrii

NANAN (egin)= jan. NENE= esnea. NONO= beia.

OGI BEDEINKATU= ona, baketsua, arazorik emoten ez dauan
umetxua.
OGI KUXKURTXU= txikia, biguna, goxoa, umeari esaten jakona.

EUSKEREA

OGI ZATI= ona baino ohea dan umeari esaten jako.

OKER= biurria, barrabana, gaiztoa.

OLLANDATXU= nagusien antza eta ibilkerak dauazan neskatilea.

PA= musua.

PA (emon, egin, bota)= musua emon, musua bota

PAPA= ogia.

PAPATA= oinetakoa.

PAPAU= zezerez burua edo begiak estalduten jakozala, umetxua bildurtuteko erabilten dan berbea / ikaratuteko keinuak egiten jakozanean / mamua / umetxuari kokolo esateko.

PAPAUTEN= ilunetan.

PAPURRAK= ogi-zopak jaterakoan ago inguruan geldituten diran ondakinak.

PARRA-PARRA= euria bota aalean eginkeran.

PATA-PATA= oinez ibiltzen dala esaten jako umetxuari.

PATXALASA= neskatilei gozoro esaten jakena.(PLATUSA)

PEPELO= kokoloa, memeloa.(PEPELERDO)

PERIKO= txiz-ontzia.

PIPI= txoria / zorri-bartza.

PIRRI= beterrea, erretxinea, mixiorra, eroan txarreko edo aldi-txarreko umetxuari esaten jako.

PISPOTA= neskatilei gozoro esaten jakena.

PITI-PATA= oinez ibiltzen esaten dana.

PITXI= olgetako balio dauan edozein txikikeria, jostailua / gauza polita ta erakargarriari buruz berba eginkeran esaten da.

PITXILIN= zakila.

PITXIN= laztana, kutuna, aingerutxua, goxoro esaten jakonean / txikitxua.

PITXITXI= txakurra.(PITXITXU)

PLAUSTA= zezzer beaeren ganera jausikeran esaten da, umetxua bera be izan leiteke.

PLISTI-PLASTA= uretan, basatan...gogotsu ibiltzeran egiten dan zaratea / ur azalean eskuaz jokeran egiten dana.

POPOLO= lodikotea, potoloa.

POPOT= autoa.

POTIN-POTINTXU= potoloa / anka okerdunaren ibilkerea.

POTOLO= popoloa, lodikotea, loditua.

POTONGO= ur putzu txikitxua, euriak eragindakoa geienetan.

POTXINGO= ur putzu txikitxua, euriak eragindakoa geien baten.

POTXOLO= gozoa, samurra / polita / laztana, aingerutxua, kutuna.

POTXON= umetxuari gozoro esaten jakona.

PUN(egin)= jausi / jausikeran egiten dan zaratea / jausia.

PUNBA= jausia.(PAUNBA)

PUNBA (egin)- beaeren ganera jausi.

PUNBALA= zezzer edo nonor jausi dala esateko, umetxua bera be tartean / jausia.

PUPU= mina / zauria / urruturea.

PUPU (egin, euki)= min egin edo euki / urratu / min artu.

PURRA= oiloa.

PURRUT= uzkerria.

PURRUT(egin)= uzkerria bota.

RAPA-RAPA= arin-arin joatean edo ibiltzen esaten da.

SAPA-SAPA= arin-arin joatean edo ibiltzen esaten da.

SAPARRO= umetxua bera /beste umetxu txiker bat.

SASKEL= loaia, saskeldoa, zikina.

SASKELDO= loaia, zikina, saskela esatea baino samurragoa.

SASKILI-BASKILI= jankeran gauzak aurrerik hara edo goitik beera botaten diranean esaten da / gauzak laskitukeran esaten da.

SEÑE= ume txikia / laztana, aingerutxua umetxuari esateko.

TAKA-TAKA= oinez ibiltzeko edo ibiltzen dala, esaten jako ume-ari.

TALAN-TALAN= kanpaia / kanpaiaren zaratea.

TALE(egin)= jo.

TAPA-TAPA= oinez ibiltzeko edo ibiltzen dala, esaten jako umeari.

TAS-TAS= nonor jokeran esaten da / umetxuak eskuak zabalik daukazala joteko keinuak egitea.

TAS-TAS (egin, emon, artu)= jo, zigortu, eperdikoa emon edo artu.

TATAN (egin)= laztan egin.

TATANTXU (egin)= laztan egin.

TATI (egin)= umetxuari gauzaren bat eskeini eta artuten doanean kendu, olgeta lez.

TATO= jauzia, saltoa.

TATO (egin)= jauzi egin / jantziak janzkeran umetxuari besoak eta anak zuloetatik sartuten lagunduteko esaten jako / jatsi.

TERRALA(artu)= umetxuak negarraldi zaratsua egiten dauanean.

TETE(egin)= jo.

TIRI-TARA= oinez ibiltzeko edo ibiltzen esaten jako umetxuari.

TIPI-TAPA= oinez ibiltzeko edo ibiltzen esaten jako umetxuari.

TIRRIN= txirrria / zila, zilbor estea ebagikeran lotuten dan zulo-txua / umetxu nesarti eta gogaikarriari esaten jako.

TIRRIN-TARRAN= dandarrez, narraz ibiltzeran.

TITI= bularra / titia artutea.

TOTO= txakurra / seina, umegorria.

TOTONOXO= txakurkumea.

TRAKATAN-TRAKATAN= belaun ganean umea jauzika dagoala, zaldi ganean balebil lez, esaten da.

TROKOLO= txaparroa, zabalotea.

TUNTURRUNTAINA(artu)= muxe artu, asarratu, bekoki iluna egin.

TURRU-TURRU= ganezka pilotu.

TXAKA-TXAKA= oinez ibiltzeran esaten jako / arin-arin ibili.

TXAKALA-TXAKALA= trenaren joana.

TXALO= belarriondoko, matrailekoa, plastadea.

TXALO-PIN-TXALO= eskuak bata besteaz jokeran egiten dan olgetea / txalo egieea.

TXANBELIN= dotorea, polita, lerdena, gozoro esaten jako neskatileari .

TXANKLAME= anka argalak daukazanari esaten jako.

TXANKA-PISTOLA= anka argalak daukazanari esaten jako.

TXANKIRRI= neskatilei gozoro esaten jakena.

TXANTXAN(egin)= dantzan egin (jantzan egin).

TXANTXUR= esne agina, umearen leenengoetariko agina. (TXATXUR)

TXAPARRO= umetxua bera / beste edozein ume txiker.

TXAPISKOLA= bizia, okerra, bizkorra, biurria, neskatileari gozoro esaten jako.

TXARRITO= saskela, saskeldoa, loaia, esaten jako umetxuari.

TXATA= sudurra.

TXATXA= sagarra, madaria edo antzekoa dan bestelako frutea / ozta-ozta oinez egiten dakian umetxuari esaten jako.

TXATXUR= esne agina, umearen leenengoetariko agina.

TXERA= umetxuak laztandukeran egiten dauan igordia, igortaldia.

TXERATSU= txerak, laztanak egitea eta artutea gogoko dauana.

TXERREN= barrabana, okerra, biurria.

TXETXE= ume txikia / ispiluan umetxuak bere burua ikusikeran esaten jakona. (TXETXITO)

TXI= erre. (TXIT)

TXIBISRERIA= jostailu txikiak, ezgauzak / gauza txikerrak.
TXIBO= zugatz baten adarretik dingilizka, danbaladaka ibilteko, eskegiten dan sokea (kolunpioa).
TXIRER= txikia.(TXIRINA)
TXIRI-TXIRI= txarriari deituteko egiten dan zaratea.
TXIRINA= neskatileari gozoro esaten jakor.a.
TXIRON= lepo ganean umetxua eroankeran, arretxikotan.
TXILBRISTO= mutilei gozoro esaten jake.
TXILIN= txintzarria.
TXILIN-TXALAN= kanpaiek ataraten daben zaratea / umea bilinbalanka aidean erabilkeran esaten da.
TXIN= dirua / txanpona.
TXINTX(egln)= zintz egin, sudur zuloetatik mukia atarateko aizea botakeran indarra egin.
TXIN-TXIN= dirua / txanpona.
TXIN-TXIN-KOSKON= umetxuari olgeta antzean esaten jako bein ta barriz, TXIN-TXIN esateaz batera kilikiliak eginez eta ROSKON esateaz batera buruan jotearen itxura eginez, kokoteko txikitxuak emoten jakoz. (beste orrenbeste RISR-RISR ROSK-ROSR berbea erabiliz)
TXINTXIRRI= umetxua negarretan isildu edo baretu daiten nagusiak eskutan eragiten deutson txintzarri antzekoa / umetxua isildu daiten nagusiak zarata on agoz egiten dauanean.
TXIO-TXIO= txoria.
TXIO-TXIOKA= txoriak abestuten dagoanean egiten dauan doinua.
TXIPLI-TXAPLA= uretan, ur azala jokeran egiten dan zaratea.
TXIPOTIN= potintxua, potxingo txikia / umetxu txikia, txaparroa.
TXIRINBUelta= bilinbueltea, bilin-bolea, itzulipurdia.
TXIRIPILLOTA= neskatilatxuari esaten jako / neskatilatxua.
TXIRIBORRO= naaste-borrastea, naastea / paperearen ganean umetxuak egiten dauan marrazketea.
TXIRRIN= txirrina / zila, zilbor estea ebagikeran lotuten dan zulutxua.
TXIRRI-TXIRRI= kilkerra, kirkiloa / ur xirripea, ur txirristatxua eta bere doinua.
TXIRTXILLERIA= gauza txiki ugariari esaten jako / umeteriea, umesaila, umetxuak batera egoteari esaten jaks / uskeriak.
TXIS= garnua, txiza / txiza egiten danean so_uten dan zarateari esaten jako.
TXISTU= zakila (PITXILIN)
TXITAN (egin)= zutundu edo oinez asten danean mugituteko esaten jako umetxuari.
TXITAN-TXITAN= umetxua zutundukeran eta mugitukeran esaten jako.
TXITXI= okelea, arraina, jatekoa / txakurra.
TXITXIMARKA= atzamarkadea / min egiteko atzamarrez aragia biurtukeran esaten da.
TXITXIRIBITXI= gauza txikiak / txirtxileriea.
TXOLINTXU= polita, alaia, lerdana dan umetxuari esaten jako.
TXONBO= uretan buruz beera murgildukeran esaten da.
TXOR-TXOR= txorien txio-txioa edo doinua / amaibako berbe-teari esaten jako, umetxuak lotu barik berba egiten dauanean.
TXORI= neskatileari buruan ipinten jakon troinuari esaten jako.
TXORTA= uleez egindako matazea / txirikordea, au da, uleak ondo orraztuta eta batuta dagozala ule mordoosotzen dabenean.
TXOTXO= txo / mutiltxuari esaten jakona.
TXOTXOBARIRU= kokoloa, kokolomendia.
TXU= txistua botatean olantxe esaten jako umetxuari.
TXURRU-TXURRU= zurrutada txikietan edatea / umetxuak tititik dzangadea artuten dauanean egiten dauan zaratea.
TXUT!= bero-bero dagoan zeozer ukutukeran / sargoria, aro beroa dagoanean / norbera errekeran esaten dana.

TXUTXU= erakargarria danari esaten jako.
UFA-UFA(ibili)= uretan ibili.(UFA-UFARA ibili)
UMEGORRI= nagusi keinuak egiten dauazan umetxua.(UME-KONDO, UMEMORO, UMESOSTOR)

ZEZENKO= umetxu indartsua, astokilotxua.
ZIZIPOZO= S-aren orde espainerazko Z esaten dauan umetxuari esaten jako.
ZURIKERIA= umetxuak zeozer lortu gura dauanean egiten dauazan txotxolokeriea.

LOTXU ENGAINADORE,
FALTSO, TRAIIDOREA!
LOTXUK ENGAINAUKO DAU,
BAI, GURE UMEA!

(Arabako Aramaisko umeentzako lotarako abestia)

Zuk, irakurle, entzungo edota erabiliko zenduzan oneetariko berba asko. Beste asko be egon badagoz gure zaarren ago-mine-tan. Olako beste barbarik jakingo edo entzungo bazendu, guri esatea biotzez eskertuko geunskizu. Batu eizuz, bada, eta esan eizuz!

Iniaki MARTIARTU
1996.eko zezeilan

BIBLIOGRAFIA

- MARKAIDA E. – Umeen hizkuntza eta lexikoa - AHOZKO LITERATURA, GENERO TXIKIAK / GAUONTZA SORTA - LABAYRU - 1991.
GAMINDE I. – Umeen berbak direla-eta - AHOZKO LITERATURA, GENERO TXIKIAK / GAUONTZA SORTA - LABAYRU - 1991.
GAMINDE I. – Urduliz inguru berbak eta bizimodu 1992.
GAMINDE I., MARKAIDA E. ta B. – Sopolako euskaraz - URDULIZKO EUSKERA TALDEA - 1993.
ARGOITIA, AZKARATE, GEZURAGA – Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk - EIBARKO UDALA - 1995.
GAMINDE I., SALTERAIN M. – Abadinoko lexikoaz - ABADINOKO UDALA 1992.
ARRETXE J. – Basauriko euskara - BASAURIKO UDALA - 1994.
PEREZ BILBAO A. – Bermeoko herri hizkera - 1991.
VILLEGAS J. – Nire biotza - LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA - 1978.
LEKUONA M. – Idaz-lan guztiak - 2. LIBURUKIA, EUSKAL ETNOGRAFIA 1978.
LEKUONA J.M. – Ahozko euskal literatura - EREIN - 1982.



EUSKEREAK BAKION BE SALDU EGITEN DAU

MERKATAL ARLOAN EUSKEREAREN ERABILEREA NORMALDUTERO EGITASMOA

Merkataritzea gizarteagaz lotu - lotuta dagoan arloa dogu, euskerearen normalkuntzarako bearrezkoa da. Merkataritza arloan Bakion euskerea egoera diglosiko erkeragan bizi da. Beraz, euskerearen erabilpen normalak merkatal artuemonen arloa be beraganatu bear dau. Arlo onetan euskerea ego-teak -daukan garrantziaz merkatariek -eta jaubetu daitezcan aalegin bereziak egin bear doguz. Artue-mon publizitario eta komertzialetan euskereak toki normaldua artu bear dau. Euskeraz egitea, euskerearen erabilerea, "kalitate ezaugarria" dogu, komertzioei balio erantsia dakartsela. Euskereak kendu baino, ekarri dakar eta. Beraz, elburu nagusia: denda, taberna, jatetxe, gasolindegia, football-zelaiko ormirudi, aseguru etxe, diru-etxe, beste zerbitzu-etxe eta abarretan euskerearen egona, agoz zein idatziz, ziurtatu eta areagotutea". Labur esanda, euskerea merkataritza mundura zabalduetea, atan be. Merkataria euskerearen inguruan alkarlanean ekarri bear doguz. Onelango egitasmoak urrengo zutabe nagusietan oinarritu bearko geunkez:

- Buruinplikazioa, euskerea eta egitasmoagazko merkatarien aldeko borondatea eta motibazioa.
- Mailaketea, komertzio baktxaren egoera soziolinguistikoaren arabera.
- Jarraitasuna, egitasmoaren arrakastearen giltzarria jarraipen zeatza da, egoerea obetuteko asmoaz.

Onetarako, neurri bereziak artu bear dira. Oneetarikoz batzuk emen agertuko doguz:

- 1.—Bakioko saltoki, taberna, jatetxe eta baltzuen sal-sare euskalduna sortu bear da. Barru eta kanpoko artuemonak euskeraz egingo dabezcan komertzio sarea, atan be. Komertzio eus-

kaldunakaz banan-banan egon bear dogu. Oneetatik erantzun baikorra emoten dabena-kaz asi bearko litzake sare euskaldun dalako ori. Gitxi badira be. Or etorkizunerako euskal merkatarien erdigunearen jaiotza egon leiteke eta.

- 2.—Sare ori sortuteko eta merkatarien arteko sareagazko sentsibilizazio kanpaina egiteko Udalaren babes politikoekonomikoa bear-bearrezkoa da. Udalarengandiko diru-laguntzak bearrezkoak dira errotulu, ormirudi,...eta abarrekoak euskaldunduteko. Merkataritzan begien aurreko izkuntza inguru-nea euskaldunduteak leentasunezko garrantzia dau. Bezeroen profil linguistikoa aldatuten lagundu bear dogu eta.

Sare euskalduna arrakastatsua izan daiten, baliabide guztiak imini bear dira eskueran. Batetik, bearrezkoak diran materialak eta bestetik, aolkularitza teknikoa eskeiniz.

Udalak laguntza ori bideratu bearko leuke (Udaleko euskera teknikaria).


- 3.—Udalaren laguntza eta babesaz komertzio euskaldunak ezagutu eragiteko ezaugarri bereziaz nabarmenduko doguz. Ezaugarri orrek "euskera labela"-ren paperea jokatu leike eta sarearen bazkidetasuna erakutsiko dau. Ezaugarri ori ("euskeraz diardugu") sartukeran eta barruan agiri-agirian eta ikusgai dan lekuetan iminteko konpromezua artuko dabe komertzio euskaldunek. Bezeroak, sartu ta berealan, jakin daien bertan euskeraz egiten dana.

Salduten dabezcan ekoizpenetan be txartel edo itsaskin txikien bidez ezaugarri ori ikusiko da.

- 4.—Udalagazko euskerearen aldeko itzarmena izenpetutearen bidez lortu bear da merkatarien konpromezua. Itzarmenean agintarien eskuartzea bearrezkoa da. Konpromezu ori


EUSKALDUN BARRIENTZAT

ITZ DORREA



- 1.- Txarra'ren zentzun-aurkakoa.
- 2.- Emakume'en jantzia.
- 3.- Leku batean izan.
- 4.- Ongi, ederki (bizkaieraz)
- 5.- Urrean, aldean, alboan.
- 6.- Joaten dago.
- 7.- Sagarrez egiten dan edaria.
- 8.- Maatsez egiten dan edaria.

AZALPENA



ORDU ONENAK

- Lagun bi lantegiko goraberak aipatzen dabiltz.
- guretzat bazkalondoko orduak dira onenak... iñork ez dau lanik egiten.
 - Zer? biago egiten dozue ala?
 - Guk ez nagusiak.

ORDU ONENAK



Ur korronteak
Debekatu dabe

5 0 0 B

5 0 0 A
B

Ez da zilegi
Errekak




KARMELE



EUSKEIMZZLEZK

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa